

nanoipuinak

**Literatura lehiaketa
gazteentzat**

2019

*Certamen literario
para jóvenes*



barañain.eus



Ayuntamiento de Barañain
Barañaingo Udala



**Udalaren euskara
zerbitzua**
Servicio municipal
de euskera

**Nafarroako
Gobernua**



**Gobierno
de Navarra**



euskarabidea

Argitaratzen diren lan hauek Barañaingo Udalak 2019ko udaberrian antolatutako literatura lehiaketan izan dira sarituak. Guztira 163 lan aurkeztu ziren eta epaimahaian pertsona hauek egon ziren:

EPAIMAHAIA - JURADO

LEHENDAKARIA - PRESIDENTA:

Ainhoa Oyaga Azcona

EPAIMAHAIKIDEAK - MIEMBROS DEL JURADO:

Alaitz Institutuko irakasleak - Profesorado Instituto Alaitz

Josu Goienetxe eta Edurne Pérez Landa

Alaitz Ikastetxe Publikoko irakasleak - Profesorado C.P. Alaitz

Nahia Urrutia Riezu eta Gurutze Hermoso de Mendoza

Sahats-IKA Euskaltegiko irakasleak

Profesorado Euskaltegi Sahats-IKA

Ascen Argandoña, Josu Asurmendi, Aitziber Garralda
eta Eider Canales González

Barañain Institutuko irakasleak - Profesorado Instituto Barañain

Amara Castañon

Estos trabajos que ahora se publican han sido premiados en el certamen literario en euskera, organizado por el Ayuntamiento de Barañain en la primavera de 2019. En total se presentaron 163 obras, y el jurado estaba formado por las personas citadas arriba.

Gure zorionik beroenak literatura lehiaketa honetan parte hartu duzuen guztioi, bereziki sarituak izan zaretenoi. Honako argitalpen honi esker zuen nanoipuin zoragarri hauek partekatu ditza-kegu, guztion gozamenerako.

Oraingo honetan saritua ez bazara izan, gonbita luzatzen dizut berriro saia zaitezten, behar bada hurbil ibilia zara baina horren berri jakin gabe, gogoan hartu ahaleginak saria dakarkiola beti berekin.

Badira 30 urte jada literatura lehiaketa hau sustatzen gabiltzala, eta denbora guzti horretan zenbat eta zenbat istorio kontatu dituzuen jabetzeaz oso atsegin-garria da guretzat. Hori guztia dela-eta, aurrera egingo dugu lehiaketarekin, maila gorenean jartzeko eta idazle talentudun berriak aurkitzeko eta aitortza erakusteko haiei.


Nire agurrik beroena eta esker ona honako esperientzia zoragarri hau ahalbideratu duzuen guztiontzat.

Nuestras más sinceras felicitaciones a todos los participantes de este certamen literario, principalmente a los premiados. Gracias a esta publicación hemos podido compartir vuestros maravillosos nanocuentos para que sean del deleite de todos.

Si en esta oportunidad no has sido premiado, te invito a intentarlo nuevamente, tal vez estuviste cerca y no lo sabes, considera que el esfuerzo siempre tiene su recompensa.

Llevamos 30 años fomentando este certamen literario y para nosotros es muy gratificante constatar la cantidad de historias relatadas en todo este tiempo. Por esta razón queremos seguir adelante con el certamen, para potenciarlo a su máxima expresión y seguir así descubriendo y reconociendo a nuevos y talentosos artistas de la pluma.

Mis más cordiales saludos y agradecimientos a todos los que han hecho posible esta maravillosa experiencia.



Iz. / Fdo.

PABLO ARCELUS CAVALLERO

Kultura eta Euskara Informazio Batzordeburua.

Presidente de la Comisión Informativa de Cultura y Euskera.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (D eredua)
Educación Secundaria Obligatoria (modelo D)



GAUZA TXIKIAK

Helene Etxeberria Lujambio

1. SARIA: DBH 2. maila / 1º PREMIO: 2º ESO

Muxu bat kopetan. Ama baten besarkada.

Euriaren usaina. Izarrak begiratzea.

Ahalegintzea eta lortzea. Erortzea eta berriro ere altxatzea.

Azkenean, zorionsu egiten gaituzten gauzak hauek dira; gauza txikiak.



GOLAK

Nahia Biurrun

Alvarez de Eulate

2. SARIA: DBH 2. maila / 2º PREMIO: 2º ESO

Berriak: Emakume bat hilda bere mutil-lagunaren eskuetan, urte honetako hemeretzigarren biktima matxista.

Espainia: Barçak irabaztea merezi zuen; arbitroa Real Madrilén alde zegoela nabaritzen zen!!!

Berriak: Gizon bat kalean baztertuta gay izateagatik.

Espainia: Ronaldok falta egin dio Messiri, honek bota behar zuen penaltia!!!
Berriak: Gizon batek beste gizon beltza kolpatzen du kale erdian Afrikarra izateagatik.

Espainian: GOOOOL!!!

Eta horrela zen Espainia, gol bat injustizia bat baino ozenago oihu egiten duen herrialde bat.

HORRENBESTE? **Beñat Astiz Isasi**

1. SARIA: DBH 3. maila
1º PREMIO: 3º ESO

Barañain, 2004ko abenduaren 6a.
Dispertsioaren ondorioz, urrun eta preso daukaten Ekain semeari bisita. Hilabeteko ohitura. Dispertsioaren aurkako guda. Alcalá Meco bidean, abenduko hotzak zartatu ditu errepide arrotzak...Barañainerako deiak, izoztu ditu bihotzak, Karmele Solaguren eraman du heriotzak. Istripu hitzak, berriro ere, estali du dispertsio hiltzailea eta aldi berean dispertsioa ezarri dutenak istripuaren gortina faltsuaren atzean ezkutatu dira. Noizbait aterako balira...Baina tira. Barañain, 2018ko abenduaren 6a. Hamalau urte pasatu dira eta hama-



lau urteko gezurrak gainditu ditu amorruren gailurrak. Hamalau urte ondoren estu jarri ditut hortzak, ez al die jaten lotsak? Horrenbeste balio al du instituzioen aitortzak?



BELDURRA

Ainara Gorostidi Garcia

2. SARIA: DBH 3. maila

2º PREMIO: 3º ESO

Etxera heldu naiz. Sofan eseri eta mugikorra eskuan dudala, lasaitzen sumatu naiz. Mezu baten esperoan nago. Urduri nago. Oso urduri. Azazkalak jan ditut jada. Denbora gehiegi pasa da “Portalean sartu naiz, ongi nago”. Arnasa lasai hartu dut. Ane nire laguna da. Emakumea izateagatik etxera bizirik ez ailegatzeko bel-durrez nengoen.



BARRUAK SINTONIZATZEN

Paula Crespo Lamelas

1. SARIA: DBH 4. maila / 1º PREMIO: 4º ESO

Beldurrak joan direnean esadazu burua galtzen duzula maiz. Esadazu pentsamenduak joan egin zaizkizula maite nuen txoriarekin. Eta nik, txoria nuen maite.

KONTURA ZAITEZ


Alejandra Mayordomo

Marchena


2. SARIA: DBH 4. maila

2º PREMIO: 4º ESO

Ilargia, gauero, agertu eta nire etxe ondoko putzu ilunaren erdi-erdian kokatzen zen, izar guztien artean, dirdiratsu, liluragarri, poliki. Baina, halako batean, putzuko ura lehortu zen eta ez nuen gehiago ilargia ikusi.



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (A eredu)
Educación Secundaria Obligatoria (modelo A)



zure haurrak itzuliko.

Baina poliziak Jon eta Joel erreskatatu zuten eta dena ondo atera zen. Lapurrak kartzelan luzaro egon ziren.

LAGUN GALDUAK **Pablo Valencia Arbizu**

1. SARIA: DBH 1. maila
1º PREMIO: 1º ESO

Ustekabeko egunean Jon eta Joel futbol zelaian jolasten ari ziren, gizon bitxi batek beraiekin jolastu ahal zuen galdetu zien eta Joelek baietz erantzun zion. Oso berandu bukatu zuten eta irten zirenean gizonak Jon eta Joel bahitu zituen eta ezkutalekura eraman zituen. Beraien amak kezkatuta zeuden, gauerdia eta oraindik etxera heldu gabe. Gurasoak oso kezkatuta zeuden eta poliziari deitu zitoten.

Polizia iristen zen bitartean, mutilen gurasoek telefono dei bat jaso zuten. Ahots harrigarri batek zera esan zien: poliziari deitzen badiozue ez ditugu

TXAPELKETA PERFEKTUA

Joel Hualde Vega

2. SARIA: DBH 1. maila / 2º PREMIO: 1º ESO

Lagunakeko bulegoan telefono dei bat jaso zuten. Bartzelonako presidentea zen. Bartzelonan jokatu den txapelketa zoragarri baterako gonbidatu nahi zuen.

Hurrengo astean taldea aireportuan zegoen Bartzelonara joateko. Lehenengo partida Malagaren kontra jokatu zuten. Partida honetan Lagunakeko jokalarari onena zauritu zen. Bukaeran korner bat ateratu zuten eta Lagunakeko atezaina igo eta...gola sartu zuen.

Hurrengo partida finalerdia zen. Valentziaren kontra jolastu zuten. Partida pixka bat errazagoa zen eta Lagunakek bat eta zero irabazi zuen. Finalean ziren!!!

Bartzelonaren kontra jokatu zuten. Ez zekiten zauritutako jokalaria arituko zen ala ez. Partida honetan penaltietara joan ziren. Denak sartu zituzten. Azken penaltia Bartzelonak bota zuen eta...Lagunakeko atezainak baloia gelditu zuen. Lagunak txapelduna izan zen!!!



TALENTU HANDIA

Ainara Alegría Rodríguez

1. SARIA: DBH 2. maila / 1º PREMIO: 2º ESO



Haizea 14 urteko neska da. Denbora librean dantzatzea maite du, baina ez da dantza klasetara joaten gurasoek diru gehiago gastatu nahi ez dutelako, diru asko ordainduko baitute Lagunaken eta ingelesezko klase pribatuetan.

Egun batean, Haizea matematika klase pribatuan zegoen Eva irakaslearekin. Haizeak eskolan bidali zizutzen ariketa batzuk egiten zituen bitartean, Evak abestia jarri zuen. Haizearen oinak musikaren erritmora mugitzen hasi ziren, aulkitik altxatu eta dantzatzen hasi zen. Evak galdetu zion Haizeari dantza ikasketak egin nahi zituen. Haizeak esan zion gurasoek ez ziotela uzten, beraz, Evak erabaki zuen dantza eskola ordaintzea. Haizea dantzari profesionala eta ospetsua izan zen.

TXAKUR BEREZI BAT **Eva López Azanza**

2. SARIA: DBH 2. maila / 2º PREMIO: 2º ESO

Amaia neska alai bat da, animaliak asko gustatzen zaizkio. Egun batean, Amaiaren amonak txakur bat opartu zion eta oso pozik dago.

Berak ez zuen nahi txakurra norbaitek eramatea, laranja pixka bat urarekin nahastuz gero hegan egiten zuelako. Horixe zen bere sekretu txikia, ez zuen nahi inork kentzea.

Txakurra eraman ez zezaten, ura eta laranja eman zion hegan egin ahal izateko. Bere burua igo eta txakurra-ekin bere hiritik ihes egin zuen.



ARGITALPENA - EDICIÓN

Barañaingo Udala-Euskara Arloa /
Ayuntamiento de Barañáin-Área de
Euskera

DISEINUA - DISEÑO Ttipi-Ttapa

INPRIMAKETA - IMPRESIÓN Kulturkari

LEGE GORDAILUA - DEPÓSITO LEGAL NA
1015-2016



barañain.eus